

GOBERNU BATZARRA

2008. 11. 03

Beh. Beh. Alkatea:

Jokin Azkue Arrastoa

Zinegotziak:

**Olatz Peon Ormazabal
Onintza Lasa Arteaga
Yurre Peñagarikano Zubeldia
Andoni Iturzaeta Arbillaga**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila zortziko azaroaren 3an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua behin behineko alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Euskal Herria Plazako zentru sozialaren gastu-sarreraren likidazioa.
- 3.- Tolosako Amarotz Auzoa 3an arrapala egin da eta diru laguntza eskaera.
- 4.- 2008ko urritik 2009ko iraila bitartean Beotibar edaritegia-kafetegiaren hileko kanona, Juan Luis Izaguirre Erasunek ordaindu beharrekoa.
- 5.- 2008ko urritik 2009ko iraila bitartean Fronton jatetxearen hileko kanona, Maidonoa jatetxea S.L.k ordaindu beharrekoa.
- 6.- E.45 "Igarondo" Eremuko urbanizazio proiektua/ Proyecto de urbanización del área R.45 "Igarondo".
- 7.- Ibilgailuen zerga J.J.G.A-ren eskaera/ Impuesto de vehículos. Solicitud de J.J.G.A.
- 8.- Berdintasun eta informatikako zerbitzuak esleitzeko pleguak.
- 9.- 29. zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2008ko urriaren 27an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Euskal Herria Plazako zentru sozialaren gastu-sarreraren likidazioa.

Gobernu batzar honek, 2005eko martxoaren 21ean, Euskal Herria plazako Zentro Sozialaren zerbitzuak gestionatzeko ardura lurramendi egoitzari eman zion.

Hori horrela, 2008ko iraileko gastu-sarreraren likidazioa aurkeztu du lurramendi egoitzak.

Aipatutako gastu-zerrenda ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aurkeztutako lidikazioa onartzea.

| | |
|-------------------|------------------|
| GASTUAK | 17.833,81 |
| SARRERAK | 5.502,00 |
| APORTAZIOA | 12.331,81 |

BIGARRENA.- Erabaki honen berri kontuhartzaileari eta lurramendi egoitzari ematea.

3.- Tolosako Amartz Auzoa 3an arrapala egin da eta diru laguntza eskaera.

2008ko urriaren 13an, 2008/126 Dekretuaren bidez, Amartz Auzoa 3ko jabekekideei arrapala egiteko baimena eman zaie, dagozkien tasen eta tramitazioaren likidazioa eginez (994,00€).

2008ko urriaren 23an, Amartzko Auzo Elkarteak idatzia aurkezten du. Bertan, 2004. urtean Amartz Auzoan beste arrapala batzuk eraiki zirela eta, baimenen likidazioen kopuruak diru laguntzen bidez berreskuratu zituztela aipatzen dute (2004ko abenduaren 30eko 2004/2021 Dekretua); eta Amartz Auzoko 3an irizpide berdina jarraitzeko eskatzen dute.

Aipatutako kontuan izanik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Amartz Auzoa 3ko jabekideei 994,00 euroko diru laguntza ematea, 2004. urtean Amartz Auzoko beste jabekideekin jarraitutako irizpide berdinak aplikatuz, horrela konpentsaturik geratuko da arrapalaren tasaren ordainketa.

BIGARREN.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari eta Amartzko Auzo Elkarteari ematea.

4.-2008ko urritik 2009ko iraila bitartean Beotibar edaritegia-kafetegiaren hileko kanona, Juan Luis Izaguirre Erasunek ordaindu beharrekoa.

Kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

1.-Juan Luis Izaguirre Erasun-ari 2008ko urritik 2009ko iraila bitartean Beotibar kafeteriaren hileko kanona %4,5 igotzea. Beraz, 2.134,86 eurokoa izango da hileko kanona.

2.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitza sailari ematea.

5.-2008ko urritik 2009ko iraila bitartean Fronton jatetxearen hileko kanona, Maidonoa jatetxea S.L.k ordaindu beharrekoa.

Kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

1.- Maidonoa jatetxea S.L.ari 2008ko urritik 2009ko iraila bitartean Fronton jatetxearen hileko kanona %4,5 igotzea. Beraz, 914,94 eurokoa izango da hileko kanona.

2.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitza sailari ematea.

6.-E.45 “Igarondo” Eremuko urbanizazio proiektua/ Proyecto de urbanización del área R.45 “Igarondo”.

Maiatzaren 12ko 0866/2008 Dekretuaren bitartez, Alkateak, hasierako onespina eman zion honako proiektu honi: E.45 “Igarondo” eremuko Urbanizazio

Por Decreto 0866/2008, de 12 de mayo, la Alcaldía procedió a aprobar inicialmente el Proyecto de Urbanización del área R.45 “Igarondo”, redactado por los arquitectos D. José Mari Aseginolaza

Proiektua, Jose Mari Aseginolaza eta Jabier Telleria Elorz arkitektoen egina, eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak 2007ko urriaren 24an bisaturikoa. Hasierako onespén hori baldintzatua eman zen, eta gainera, baldintza horiek jasoko zituen testu bateratua aurkeztua exigitzu zen.

Proiektua jendaurrean egon da hogeit eguneko epean. Horretarako argitarapenak egin dira ondorengo medio hauetan: Gipuzkoako A.O.ean (2008ko maiatzaren 23ko 98 zk-dun alean) Berrian, Diario Vascon eta Hitzan (2008ko maiatzaren 27an).

Jendaurreko epe horretan, 2008ko maiatzaren 26an, Bidebietako bizilagun talde batek idatzi bat aurkeztu zuen udal bulegoetan zera eskatuz: Igarondoko plaza berriaren eta Bidebieta Auzoaren arteko desnibela gainditzeko proiektaturiko igogailuaren ordezk arrapala mekanikoak instalatzeko.

2008ko uztailaren 17ko idatziaren bitartez kontrako erantzuna eman zitzaion aipatutako alegazioari.

2008ko urriaren 3an, eta hasierako onespéneko baldintzak betetzearren, BISTA ALAI, SA delakoak testu bateratua aurkeztu du. Jose Mari Aseginolaza eta Javier Telleria Elorz arkitektoek idatzi eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak 2008ko irailaren 23an bisaturiko dokumentua, hain zuzen ere.

Ikusita dokumentuari buruz teknikoek idatzi dituzten txostenak,

y D. Jabier Telleria Elorz, y visado por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro con fecha 24 de octubre de 2007, con una serie de condiciones. Por dicho decreto se exigió, además, la presentación de texto refundido adecuado al condicionado de la aprobación inicial.

El Proyecto ha estado en información pública por el plazo de veinte días, mediante la publicación del anuncio correspondiente en los siguientes medios: B.O. de Gipuzkoa (n.º 98 de 23 de mayo de 2008), Berria, Diario Vasco, e Hitzan (27 de mayo de 2008).

Durante el período de información pública, el 26 de mayo de 2008, tuvo entrada en las dependencias municipales un escrito suscrito por un grupo de vecinos de Bidebieta en solicitud de sustitución del ascensor proyectado para salvar el desnivel entre la nueva plaza de Igarondo y el barrio de Bidebieta por unas escaleras mecánicas.

Por escrito de 17 de julio de 2008 se dió respuesta desfavorable a dicha alegación.

Con fecha 3 de octubre de 2008, a fin de dar cumplimiento al condicionado de la aprobación inicial, BISTA ALAI, S.A. presenta Texto Refundido redactado por los arquitectos D. José Mari Aseginolaza y D. Jabier Telleria Elorz, y visado por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro con fecha 23 de septiembre de 2008.10.24

Vistos los informe técnicos emitidos al respecto, así como el dictamen de la

eta Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorri, Gobernu batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Bidebieta zenbait bizilagunen izenean Nieves Aiestaran eta beste batek aurkeztutako alegazioari emandako erantzuna bere zehaztapen guzietan berrestea. Zehaztapen horiek ondorengoak dira:

Orain arte Tolosako erdigunea eta Bidebieta/Igaralde auzuneen arteko lotura ez da irigarria izan. Lotura hau eskailera desegoki batzuen bitartez edo malda handiko ibilbideen bitartez izan da.

Igarondo eremuko etxebizitza garapenarekin Udalak aukera bat ikusi zuen auzo hauetarako irigarritasuna hobetzeko. Honela, etxebizitza hauen inguruko urbanizazioan ekintza desberdinak aurreikusi dira:

- Irogailu baten instalazioa etxebizitza berriekin sortuko den plaza eta Bidebieta auzunea lotuko dituenak.
- Eskailera erosoago batzuek egokitzea.
- Irigarritasun irizpideak betetzen dituen arrapala sistema bat eraikitzea (ez mekanikoa).

Arrapala mekanikoak, eskailera mekanikoak edo irogailu bat instalatzeko aukerak kasu bakoitzean baloratu behar dira, batik bat, hiri espazioak eskaintzen dituen

comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.-Ratificar, en todos sus términos, la contestación dada a la alegación formulada por Dña. Nieves Aiestaran y otra, en nombre y representación de algunos vecinos de Bidebieta. Términos que se recogen a continuación:

Hasta el presente la conexión entre el centro urbano y el barrio de Bidebieta/Igaralde carecía de accesibilidad. Esta conexión se ha efectuado mediante escaleras inadecuadas o un acceso de gran pendiente.

Con el desarrollo residencial del área de Igarondo el Ayuntamiento ha visto la oportunidad de mejorar la accesibilidad del barrio. En este sentido, se plantean diferentes intervenciones en la urbanización de las viviendas previstas:

- La instalación de un ascensor que enlace el barrio de Bidebieta con la plaza diseñada con la construcción de las nuevas viviendas.
- Habilitación de unas escaleras más cómodas.
- Construcción de un sistema de rampas (no mecánicas) que cumplan los criterios de accesibilidad.

Las posibilidades de instalación de rampas mecánicas, de escaleras mecánicas o de un ascensor deben ser valoradas en cada caso, considerando las condiciones y las posibilidades que

aukera eta baldintzen arabera.

Kasu honetan, igogailuaren instalaziorako baldintza aproposak zeuden eta gainera, igogailua etxebizitza eraikin berrian integraturik doanez, haren presentzia estetikoak minimoa da. Igogailuaz gainera, %8ko malda eta 2 eta 4 m bitarteko zabalera duen arrapala sistema bat aurreikusi da, erosotasun osoz bai gurgildun aulkiak, bai haurrentzako aulkiak mugitu ahal izateko.

Igogailu honek 15m inguruko desnibela gainditzen du, bai gorantz bai beherantz. Desnibel hau arrapala mekaniko bidez gainditzeko (gehienez %8ko malda) 187,5 m luzeko garapena duen arrapala mekanikoa ipini behar litzateke. Bestalde, kontuan izanik arrapala mekanikoak soilik zentzu batetan mugitzen direla, bai gorantz bai beherantz irisgarritasuna bermatu ahal izateko luzera hau bikoiztu egin behar litzateke 375 m luzeko arrapalak ipiniz guztira.

Beraz, irtenbide hau erabat desproporcionatua dela ikus daiteke, bai okupatuko lukeen espazioagatik, bai izango lukeen kostuagatik ere.

BIGARRENA.-Behin betiko onespenera ematea Jose Mari Aseginolaza eta Javier Telleria Elorz arkitektoek idatzi eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak 2008ko irailaren 23an bisaturiko Testu Bateratuari. E.45 "Igarondo" eremuko urbanizazio proiektuaren testu bateratuari, hain zuzen ere.

Behin betiko onespenera, ondoren zehazten diren kondizioak betetzera baldintzatuta gelditzen da:

ofrecen los espacios urbanos.

En este caso, las condiciones para la instalación de un ascensor son adecuadas y, además, al estar integrado en el edificio de viviendas su presencia estética es mínima. Además del ascensor se prevé un sistema de rampas con un 8% de pendiente y una anchura variable entre 2 y 4 m que permitirá que las sillas de ruedas y los coches de niños puedan moverse cómodamente.

El ascensor salva un desnivel aproximado de 15 m, tanto hacia arriba como hacia abajo. Para salvar este desnivel mediante una rampa mecánica (pendiente máxima del 8%) debería instalarse una rampa de 187,5 m de longitud. Por otra parte, teniendo en cuenta que las rampas mecánicas son unidireccionales, para garantizar la accesibilidad hacia arriba y hacia abajo sería preciso doblar su longitud, es decir, instalar rampas en una longitud total de 375 m.

Por lo tanto, es evidente que esta alternativa es totalmente desproporcionada por el espacio que ocuparía y por su costo.

SEGUNDO.-Aprobar definitivamente el Texto Refundido del Proyecto de Urbanización del área R.45 "Igarondo" redactado por los arquitectos D. José Mari Aseginolaza y D. Jabier Telleria Elorz, y visado por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro con fecha 23 de septiembre de 2008.

La aprobación definitiva queda supedita al cumplimiento de las siguientes condiciones:

1.-HERRIKO ARGI SAREA

10.4 planoan 1. zenbakiko zirkuitua aginte koadroarekin lotzea falta da.

Urbanizazio hau egiterakoan, Zumardi Haundiaren birgaitze proiektuarekin koordinatu beharko da.

Ondorengo hau proposatu da: bi urbanizazioetako argi publikoei dagozkien jarduerak koordinatzea eta eremu osoko argitapen publikoa kontrolatzeko koadro bakarra instalatzea. Geroago ibaiaz bestaldeko etorkizuneko urbanizazioko argi sarea gehitzeko aukera legoke.

Horren arabera, zirkuituak armairuan jartzeko espazioa Tolargirekin adostea, adierazitakoaren arabera, beharrezkoa dirudi. Zumardiaundia birgaitzeko proiektuak, berez, bi zirkuitu gehi erreserbako bat beharko direla aurreikusia du.

Argiak jartzerakoan, herriko argiak kudeatzen dituen TOLARGI, S.L.ko zerbitzu teknikoek jarraibideak aintzat hartu beharko dira, premiazko xehetasun guztiak zehazteko.

Era berean, argien hodian kanalizazioak lotu egin beharko dira inguruko urbanizazioekin, 110eko bi hodiren bidez. Argi zirkuituen lurreko sarea ere lotu beharko da.

2.-ELEKTRIZITATEA BANATZEKO SAREA

Lurpeko edukiontzietan elektrizitatea sartzea falta da.

1.-RED DE ALUMBRADO PUBLICO

En el plano 10.4 falta unir el circuito número 1 con el cuadro de mando.

Esta urbanización se deberá coordinar en su ejecución con proyecto de rehabilitación de Zumardi Haundia

Se propone que se coordine las actuaciones en relación con el alumbrado público de las 2 urbanizaciones de forma que se instale un cuadro único de control del alumbrado público de la zona, al que se podría añadir posteriormente el alumbrado de la futura urbanización al otro lado del río.

Parece necesario consensuar con Tolargi el espacio necesario en el armario para las ubicaciones de los circuitos necesarios en función de lo comentado. El proyecto de rehabilitación de Zumardi Haundia por si solo ya contempla la necesidad de dos circuitos más el de reserva.

En la ejecución del alumbrado se deberán seguir las directrices de los servicios técnicos de TOLARGI, S.L. que gestiona el alumbrado público municipal, para concretar los detalles que sean precisos.

Asimismo se deberán unir las canalizaciones de los tubos de alumbrado con las urbanizaciones colindantes con dos tubos 110 y unir la red de tierras de los diferentes circuitos de alumbrado.

2.-RED DE DISTRIBUCION DE ELECTRICIDAD

Falta la acometida eléctrica a los contenedores soterrados.

Energia elektrikoa jartzerakoan, herriko argiak kudeatzen dituen TOLARGI, S.L. ren zerbitzu teknikoen jarraibideak aintzat hartuko beharko dira, premiazko xehetasun guztiak zehazteko.

Obra amaierako dokumentazioan trazatu zehatza jaso beharko da, instalatutako hodian distantzia eta sakontasun kotekin eta erreferentziekin. Dena euskarri informatikoan eta UTM koordinatuekin egin beharko da. Horrez gain, beste zerbitzu batzuekin gurutzatzen direlako edo muntaia zaila delako arazoak ematen dituzten tokietan argazkiak egin eta obra amaierako dokumentazioarekin batera entregatuko dira.

3.- GAS SAREA

Gas sare berrirako aurkeztutako proposamena egokia da.

Hura egiterakoan kontuan hartu beharko da Ura Agentziak Kondeaneko aldapa kalean egindako kolektorea; baita, obra horretarako egindako gainezkabidea eta gas desbideraketa ere.

Lanari ekin aurretik, konpainia arduradunei zerbitzuak eskatu beharko zaizkie; bai gas zerbitzua bai gainerako zerbitzuak.

Aurrekontuan, zanga edo lubakia irekitzeko unitateak asfalto zoladura berriro lehen bezala uztea aurreikusi du, baina ez, ordea, espaloia eta bide zoru osoa. Hala ere, konponketa guztiek bide zoru osoa lehen bezala uztea barne hartu behar dutela uste da.

En la ejecución de la energía eléctrica se deberán seguir las directrices de los servicios técnicos de TOLARGI, S.L. que gestiona el alumbrado público municipal, para concretar los detalles que sean precisos.

La documentación fin de obra vendrá con el trazado exacto así como con cotas y referencias de distancias y profundidades de las conducciones instaladas, todo ello en soporte informático y coordenadas UTM, además se realizarán fotografías de los puntos más problemáticos bien sea por cruce con otros servicios bien por la complejidad del montaje y se aportarán en dicha documentación fin de obra.

3.-RED DE GAS

La propuesta de la nueva red de gas presentada es correcta.

En la ejecución de la misma se deberá tener en cuenta el colector ejecutado por Ura Agentzia en la calle Kondeaneko aldapa, así como el aliviadero y el desvío del gas realizado para la ejecución del mismo.

Anteriormente a la ejecución de la misma será necesario solicitar a las compañías correspondientes los servicios existentes, del gas y del resto de servicios.

En el presupuesto la unidad de apertura y zanja contempla la reposición del pavimento asfáltico, no incluye la reposición de acera y el firme completo. Se considera que en todas las reposiciones se ha de incluir el conjunto del firme en la reposición.

Obra amaierako dokumentazioan trazatu zehatza jaso beharko da, instalatutako hodian distantzia eta sakontasun kotekin eta erreferentziekin. Dena euskarri informatikoan eta UTM koordenatuekin egin beharko da. Horrez gain, beste zerbitzu batzuekin gurutzatzen direlako edo muntaia zaila delako arazoak ematen dituzten tokietan argazkiak egin eta obra amaierako dokumentazioarekin batera entregatuko dira.

4.- EDATEKO URA

Urbanizazioan suteetarako beste ur hartune bat ipini behar dela uste da. Baliteke hartunea jarri ez izana justifikaturik egotea, posible delako, etxeen aurrealdetik 100 metro baino gutxiagora, bide publikoan, egoera onean dagoen suteetarako beste ur hartune bat egotea, zeina planoetan adieraziaren arabera kokatua baitago.

Kondukzioetan instalatu beharreko elementuak eta pieza bereziak Gipuzkoako Urak S.A.k homologatu beharko ditu, eta Gipuzkoako Urak S.A.k presio baxuko ur sarerako ezarritako araudi teknikoa bete beharko da. Zalantzaren bat sortzen bada, ur zerbitzuko pertsonak aztertuko dute kasu bakoitza.

Kondukzioetan instalatu beharreko elementuak eta pieza bereziak Gipuzkoako Urak S.A.k homologatu beharko ditu, eta bereziki, honakoak:

IRUA BRA-45-63 ereduko suteetarako hartuneak.

Purdie motako tranpolak.

Eta gainontzeko elementuak, obran

La documentación fin de obra vendrá con el trazado exacto así como con cotas y referencias de distancias y profundidades de las conducciones instaladas, todo ello en soporte informático y coordenadas UTM, además se realizarán fotografías de los puntos más problemáticos bien sea por cruce con otros servicios bien por la complejidad del montaje y se aportarán en dicha documentación fin de obra.

4.-AGUA POTABLE

Se considera necesaria la colocación de un segundo hidrante en la urbanización pudiendo justificarse la no colocación del mismo en base la posible existencia de un segundo hidrante, en condiciones, en vía pública a una distancia menor a 100 metros de la fachada. Ubicada de forma distribuida respecto a la indicada en planos.

Los elementos y piezas especiales a instalar en las conducciones serán los homologados por Aguas de Gipuzkoa S.A. y se deberá cumplir con el reglamento técnico para red de baja que ha establecido GIPUZKOAKO URAK S.A. En caso de duda se estudiará cada caso por personal del servicio de aguas.

Los elementos y piezas especiales a instalar en las conducciones serán los homologados por Aguas de Gipuzkoa S.A. y en especial.

Las bocas de riego mod. IRUA BRA-45-63

Los trampillones tipo Purdie

Y demás elementos que en obra se

bertan, zalantzarik izanez gero, ur zerbitzuetako langileek zehaztu beharrekoak.

Kondukzio nagusiak hodi horietarako agindu teknikoen pleguaren arabera jarri beharko dira, eta arreta berezia ipiniko da ondorengo hauetan:

Bai kondukzioak, bai bridak baita elementu bereziak ere, gutxienez, PN-16 izango dira.

Galdaketa kondukzioek eta osagarriek, bai bridadunek bai entxufatzen direnek, indarrean dauden ondorengo araudiok bete eta fede emanez egiaztatu beharko dituzte:

- Europako EN 545
- Nazioarteko ISO 2531
- Espainiako UNE – EN 545
- UNE, EN-124 galdaketa erregistroak
- AE konporta balbulak: ISO 7259 eta UNE – EN 1074

Kondukzioak hondar gainean behin jarrita, material berarekin estaliko dira, hodi sortzaile gorenaren gainetik 15 zentimetro. Hortik gora, hautatutako materialaz, 40 zentimetro inguruko geruzekin estali eta gogortu ahal izango da.

Gurutzatze berezietan, hormigonatutako PVCzko hodiz eratutako babesgarriekin estaliko dira.

Hornikuntza kondukzioak lurpeko beste ezein kanalizazio baino altuago joango dira, eta gutxienez, 30 zentimetroko tartea izango dute beste zeinahi kondukzioen hodi sortzailearekin.

Behin kondukzioa elementu guztiekin instalatutakoan, presio proba egingo da, zerbitzuko

especificarán en caso de duda por personal del servicio de aguas.

Las conducciones generales se instalarán de acuerdo al pliego de prescripciones técnicas para estas tuberías y poniendo especial hincapié en:

Tanto las conducciones como bridas y elementos especiales serán, como mínimo PN-16

Las conducciones de fundición y accesorios tanto con bridas como con enchufe, cumplirán, y deberán certificar fehacientemente las normalizaciones vigentes:

- Europea EN 545
- Internacional ISO 2531
- Española UNE – EN 545
- los registros de fundición UNE, EN-124
- Las válvulas de compuerta AE: ISO 7259 y UNE – EN 1074

Extendidas las conducciones sobre el asiento de arena, se cubrirán del mismo material unos 15 cm sobre la generatriz superior. A partir de aquí se podrá compactar con tongadas de unos 40 cm con material seleccionado.

En los cruces especiales se protegerán con camisas exteriores de tubo de PVC hormigonados.

Las conducciones de abastecimiento irán a cota superior a cualquier otra canalización enterrada, separándose como mínimo 30 cm entre la generatriz exterior de cualquier otra conducción.

Instalada la conducción con todos sus elementos se realizará la prueba de presión con una presión superior al 40%

langileren bat bertan dela, dagoena baino % 40 presio handiagoaz.

Presio probak amaitutakoan, kondukzioaren desinfekzioari ekingo zaio ondorengo metodologiaren arabera:

A- Kloroa 10 ppm-ko proportzioan duen urez beteko da hodia, eta bi muturrak itxi egingo dira.

B- 24 orduren ondoren, kloro hondarrik ote dagoen begiratu da (1 ppm).

C- Kondukzioa hustu eta 5 minutuz urberrituko da banaketa sareko urarekin. Urberritutako uraren lagin bat jaso eta kontrol eta zaintze lanetan esperientzia duen laborategi batera bidaliko da, bertan gutxieneko mikrobiologia azterketa bat egin dakion. Emaidza egokia bada, zerbitzuan ipiniko da, sare nagusiari behin betiko loturak egin ondoren.

Desinfekzio probaren ondoren, sare nagusiari egin beharreko loturak programatu dira, ur zerbitzuko langileekin batera.

Obra amaierako dokumentazioan trazatu zehatza jaso beharko da, instalatutako hodian distantzia eta sakontasun kotekin eta erreferentziekin. Dena euskarri informatikoan eta UTM koordinatuekin egin beharko da. Horrez gain, beste zerbitzu batzuekin gurutzatzen direlako edo muntaia zaila delako arazoak ematen dituzten tokietan argazkiak egin eta obra amaierako dokumentazioarekin batera entregatuko dira.

Hornikuntza sareko arketen tapen gainean honako hau egongo da

de la existente en presencia de algún operario del servicio.

Realizadas las pruebas de presión, se procederá a la desinfección de la conducción con la metodología siguiente:

A-Se llena la conducción con agua con 10 ppm de cloro residual y se cierran los extremos.

B-Después de 24 horas se verifica que hay cloro residual (1 ppm).

C-Se vacía la conducción y se aclara durante 5 minutos con agua de la red de distribución. Una muestra del agua aclarada se enviará a un laboratorio reconocido como unidad de control y vigilancia, donde se le practicará un análisis mínimo con microbiología. Si el resultado es satisfactorio se recepciona y pone en servicio tras realizar los empalmes definitivos a la red general.

Tras la prueba de desinfección se programarán los empalmes a la red general con el personal del servicio de aguas.

La documentación fin de obra vendrá con el trazado exacto así como con cotas y referencias de distancias y profundidades de las conducciones instaladas, todo ello en soporte informático y coordinadas UTM, además se realizarán fotografías de los puntos más problemáticos bien sea por cruce con otros servicios bien por la complejidad del montaje y se aportarán en dicha documentación fin de obra.

Las tapas de arquetas de abastecimiento deben de llevar la leyenda de EDATEKO URA.

idatzita:EDATEKO URA.
GIPUZKOAKO URAK S.A.ko teknikariek in adostu beharko da obra.

5.-UREZTATZEA

Proposatutako ureztatzeko sistemak ez ditu berdegune guztiak kontuan hartzen.

Proposatutako sareak alde batera utzitakoak ere bildu behar dira, aurreko ureztatzeko sistemaren jarraibide berberak errespetatuta; emari neurgailu bat izango dute ura hartzen duten tokian, emaria kontrolpean izateko. Kondukzioetan instalatu beharreko elementuak eta pieza bereziak Gipuzkoako Urak S.A.k homologatu beharko ditu, eta Gipuzkoako Urak S.A.k presio baxuko ur sarrerako ezarritako araudi teknikoaren bete beharko da. Zalantza bat sortzen bada, ur zerbitzuko pertsonak aztertuko dute kasu bakoitza.

Lorategi eta berdegune guztiak ureztatu beharko dira. Soropilak ureztatzeko automatikoa izango du, bateriadun programagailu autonomoaz. Tolosako Udalak Rain Bird etxeko T-Boss sistema erabiltzen du.

6.-SANEAMENDUA

10.9 planoan. Saneamenduaren eskema orokorrean, edukiontzietako urak bilduko dituen kutxatila falta da, Biurrarenen eskemaren eta kolektorearekiko loturaren arabera.

Saneamendu konexioaren trazatua egiterakoan kontuan hartu beharko da laster egiteko delako eremu hau zeharkatuko duen Oria Erdialdeko hodi biltzailearen zatia; ahal bada, hodi biltzaile horrekin lotu beharko

La obra será consensuada con los técnicos de GIPUZKOAKO URAK S.A.

5.-RIEGO

El sistema de riego propuesto no recoge todas las zonas verdes.

Las no recogidas por la red propuesta es necesario que sean recogidas siguiendo las mismas indicaciones al anterior sistemas de riego; Llevarán un caudalímetro instalado en el comienzo de la acometida para control de caudales. Los elementos y piezas especiales a instalar en las conducciones serán los homologados por Aguas de Gipuzkoa S.A. y se deberá cumplir con el reglamento técnico para red de baja que ha establecido GIPUZKOAKO URAK S.A. En caso de duda se estudiará cada caso por personal del servicio de aguas.

Todos los parterres y zonas verdes se deberán de regar. El césped debe de llevar riego automático con programador autónomo de batería. El sistema utilizado por el Ayuntamiento de Tolosa es el T-Boss de Rain Bird.

6.-SANEAMIENTO

Plano 10.9 Falta en el esquema general del saneamiento la arqueta de recogida de las aguas de los contenedores según el esquema de Biurrarena y su conexión al colector.

El trazado de la conexión del saneamiento se determinará teniendo en cuenta la próxima ejecución del interceptor del Oria Medio a su paso por esa zona, conectándose si es posible a dicho interceptor. Se supone que para

da. Pentsatzekoa da urbanizazioa egiterako Ibarako hodi biltzailearen lanak bukatuta egongo direla, eta, beraz, urbanizazioko ur beltzen sarea Ibarako hodi biltzailearekin konektatu ahal izango dela Kondeko Aldapa gurutzatu beharrik izan gabe. Erabaki hori obran bertan hartu beharko da, bi lanen bilakaera ikusita.

Kondukzioetan instalatu beharreko elementuak eta pieza bereziak Gipuzkoako UraK S.A.k homologatu beharko ditu, eta Gipuzkoako UraK S.A.k presio baxuko ur sarerako ezarritako araudi teknikoa bete beharko da. Zalantzaren bat sortzen bada, ur zerbitzuko pertsonak aztertuko dute kasu bakoitza.

Egin beharreko kutxatilik kolektoreari «jarraiki» egingo dira, erregistroko kutxatilerako zulaketak gerorako utzita. Hondoak eta elkarguneak «sehaska» erakoak izango dira.

Obra amaierako dokumentazioan trazatu zehatza jaso beharko da, instalatutako hodian distantzia eta sakontasun kotekin eta erreferentziekin. Dena euskarri informatikoan eta UTM koordenatuekin egin beharko da. Horrez gain, beste zerbitzu batzuekin gurutzatzen direlako edo muntaia zaila delako arazoak ematen dituzten tokietan argazkiak egin eta obra amaierako dokumentazioarekin batera entregatuko dira.

Lana amaitutakoan, telebista kamera bat ibiliko da obran, dena behar bezala egin dela egiaztatzeko, eta bideo txosten bat entregatuko da. Zalantzarik izanez gero, zerbitzuko pertsonak beharrezko jotzen dituzten probak egingo dira (hermetiko-

cuando se ejecute la urbanización las obras del interceptor de Ibarra estarán acabadas, por lo cual, la red de fecales a ejecutar en la urbanización se podrá conectar con el nuevo Interceptor de Ibarra sin tener que cruzar Kondeko Aldapa. Esta decisión se tomará en obra según vayan discurriendo ambas obras.

Los elementos y piezas especiales a instalar en las conducciones serán los homologados por Aguas de Gipuzkoa S.A. y se deberá cumplir con el reglamento técnico para red de baja que ha establecido GIPUZKOAKO URAK S.A. En caso de duda se estudiará cada caso por personal del servicio de aguas.

Las arquetas a realizar serán con el colector "en continuo", practicándose las perforaciones para la arqueta de registro con posterioridad. Los fondos y encuentros serán "acunados".

La documentación fin de obra vendrá con el trazado exacto así como con cotas y referencias de distancias, profundidades y diámetros de las conducciones instaladas, todo ello en soporte informático y coordenadas UTM, además se realizarán fotografías de los puntos más problemáticos bien sea por cruce con otros servicios bien por la complejidad del lugar y se aportarán en dicha documentación fin de obra.

Al finalizar el trabajo se pasará una cámara de televisión para verificar la correcta ejecución de la obra y se entregará un vídeo-informe. En caso de duda, se realizarán las pruebas que el personal del servicio estime necesarias en el momento (estanchidad...)

tasuna...)

7.-EURI URAK

Euri uren kolektoretik Zelai ibairako hustubidea egin baino lehen, Ibarako kolektorearen kotak eta handik hurbil eraikitako gainezkabidearen kokagunea aztertu beharko dira. Era berean, Zumardi Haundia birgaitzeko proiektuarekin, zolatze lanekin eta abarrekin koordinatu beharko da.

Pasagune, eskailera eta aldapetako burdin sareek Berazubi plazakoak bezalakoak izan beharko dute.

Euri urak kolektore nagusira sartzen diren leku guztietan, erregistro kutxatila bana egin beharko da; toki horietara kutxatilatik bertatik iritsi ahal izan dadin, hartarako beharra dagoenean (buxadurak eta abar).

Euri ur sareko gutxieneko malda % 1,5koa izango da.

Egin beharreko kutxatilak kolektoreari «jarraiki» egingo dira, erregistroko kutxatilerako zulaketak gerorako utzita. Hondoak eta elkarguneak «sehaska» erakoak izango dira.

Obra amaierako dokumentazioan trazatu zehatza jaso beharko da, instalatutako hodian distantzia eta sakontasun kotekin eta erreferentziekin. Dena euskarri informatikoan eta UTM koordinatuekin egin beharko da. Horrez gain, beste zerbitzu batzuekin gurutzatzen direlako edo muntaia zaila delako arazoak ematen dituzten tokietan argazkiak egin eta obra amaierako dokumentazioarekin batera

7.-PLUVIALES

El desagüe del colector de pluviales al río Zelai requerirá del estudio de las cotas del colector de Ibarra y del emplazamiento del aliviadero construido en las inmediaciones, así como la coordinación de su ejecución con el del proyecto de rehabilitación del Zumardi haundia, en su pavimentación...

Las rejillas de las pasarelas, escaleras y rampas deberán de ser como las colocadas en la plaza de Berazubi.

Todas las acometidas de pluviales en su entronque con el colector general irán provistas de su correspondiente arqueta registrable para posibilitar el acceso a dichas acometidas desde la propia arqueta cuando sea necesario (atascos etc.)

La pendiente mínima en la red de pluviales será del 1,5%.

Las arquetas a realizar serán con el colector "en continuo", practicándose las perforaciones para la arqueta de registro con posterioridad. Los fondos y encuentros serán "acunados".

La documentación fin de obra vendrá con el trazado exacto así como con cotas y referencias de distancias, profundidades y diámetros de las conducciones instaladas, todo ello en soporte informático y coordenadas UTM, además se realizarán fotografías de los puntos más problemáticos bien sea por cruce con otros servicios bien por la complejidad del lugar y se aportarán en dicha documentación fin de obra.

entregatuko dira.

Lana amaitutakoan, telebista kamera bat ibiliko da obran, dena behar bezala egin dela egiaztatzeko, eta bideo txosten bat entregatuko da. Zalantzarik izanez gero, zerbitzuko pertsonak beharrezko jotzen dituzten probak egingo dira (hermetikotasuna...)

8.-LOREZAINZA

Lur geruzaren azpian ez du zaborrik egon behar.

Soropilak ureztatze automatikoa izango du; bateriadun programagailu autonomoa izan beharko du ureztatze sistemak.

Txorakoak metro bateko sakontasuneraino hustu eta landare-lurrez bete beharko dira.

9.-HIRI ALTZARIAK

Irizpide berak ezartzearen, hanka arineko neo-erromantiko estiloko eserlekuak eta Santa Cole etxearen Nu ereduak jartzea proposatu da. Banku ereduak eremuari ondoen egokitzen zaiona izan behar du. Edozein aldaketa dagokion udal teknikariarekin adostu beharko da.

Jolastokiak 8 urte arteko haurrentzakoak izango dira; Gipuzkoa eta Foruen plazan ipinitakoen ildokoak, alegia.

10.-BIDEGORRIA

Bidegorria inguruko bidegorriekin lotu beharko da. Hau da, Zumardiaundian diseinatuarekin eta, Oriaren eskuineko ibaiertzean, Kondeaneko Aldapan dagoenarekin.

Al finalizar el trabajo se pasará una cámara de televisión para verificar la correcta ejecución de la obra y se entregará un vídeo-informe. En caso de duda, se realizarán las pruebas que el personal del servicio estime necesarias en el momento (estaqueidad...).

8.-JARDINERIA

Debajo de la capa de tierra no debe de haber escombros.

El césped debe de llevar riego automático con programador autónomo de batería.

Los alcorques se deberán de excavar para rellenar de tierra vegetal hasta un metro de profundidad.

9.-MOBILIARIO URBANO

En aplicación al criterio de uniformidad se propone la colocación de bancos tipo neoromántico de pata liviana y el modelo Nu de Santa Cole. El modelo de los bancos deberá ser el más adecuado a la zona. Cualquier cambio deberá consensuarse con el correspondiente técnico municipal.

Los juegos deberán de ser para niños de hasta 8 años en la línea de los colocados en la Plaza Gipuzkoa y Fueros.

10.-BIDEGORRI

El bidegorri deberá de conectarse con los bidegorris de la zona, esto es, con el diseñado en el Prado Grande y con el de la margen derecha del río Oria en Kondeko Aldapa.

Bidegorriak 2,20 metroko zabalera izango du.

Seinaleek eta pintatze lanek, bai zorukoek bai zutikakoek, Udalak ezarritako irizpideen arabera izan beharko dute.

11.-ZABORRAK

Edukiontzi guztiak 3.200 litrokoak izango dira, eta aldamenetik kargatzeko prestatuta egongo dira; beiraren kasuan izan ezik, goitik kargatuko baita.

12.-PASAGUNEA, ALDAPAK ETA ESKAILERAK

Pasagunearen metalezko egitura, habe nagusiak eta pieza zurrungarria korten altzairuzkoak dira, eta hortaz, ez dute mantentze-lanen premiarik. Metalezko armazoiak, ordea, altzairuzko IPN profilez osaturik dagoenez, akabera premia du gainazalaren tratamenduari, pinturari eta inprimazioei dagokienez (beroan galbanizatutako profilak, korrosioaren aurkako inprimazioak eta akaberako pinturak). Esandako profil horiek, beraz, erraz iristeko moduan egongo dira, mantentze-lanak egiteko.

Pasagunearen zorua IPE zurezkoa denez, zur hori ildaskatu egin beharko da. Era berean, irrist ez egiteko, zurak azaleko tratamendua izan beharko du.

13.-URBANIZAZIO FASEAK

Entregatutako proiektuan, «Urbanizazio faseak» adierazten dituen planoak dator. Plano horretan, bai urbanizazioaren bai etxeen eraikuntzaren faseen plangintza

La anchura del bidegorri será de 2,20 metros.

La señalítica y la pintura tanto horizontal como vertical se realizará siguiendo los criterios marcados desde el Ayuntamiento.

11.-BASURAS

Todos los contenedores serán de 3.200 litros, preparados para carga lateral excepto el de vidrio que será de carga superior.

12.-PASARELA, RAMPAS Y ESCALERAS

En cuanto a la estructura metálica de la pasarela, las vigas principales y la pieza rigidizadora son de acero korten por lo cual no necesitan mantenimiento, pero el entramado metálico que está compuesto por perfiles IPN de acero que deben de tener una terminación en cuanto tratamientos superficiales, pinturas e imprimaciones (perfiles galvanizados en caliente, imprimaciones anticorrosión y pinturas de acabado). Estos perfiles deben de ser accesibles para su mantenimiento.

Siendo el suelo de la pasarela de madera IPE, esta debe de ser estriada y con tratamientos superficiales antideslizantes

13.-FASES DE URBANIZACIÓN

En el proyecto entregado se ha incluido un plano de "Fases de Urbanización". En dicho plano se hace una planificación de las fases en las que se puede dividir tanto la urbanización como la construcción de

dago. A faseak, non urbanizazioaren zati nagusia dagoen, 0 kotarainoko etxebizitzaren forjatu guztiak barne hartu beharko ditu, baita eremutik kanpoko urbanizazio elementuak ere. Ildo horretatik, fase horretan bertan bukatuta utzi beharko da atzeko plazarekin eta Zumardiaundiarekin komunikatuko duen aldaparekiko sarbidea.

Eraikuntzaren faseak zeinahi direla ere, eta, neurri handi batean, hura amaitzeko epean inguruan une honetan dagoen ziurgabetasuna dela-eta, lehen eraikuntza baimena eman zenetik hasita hiru urteko epean azken faseetako eraikuntza lanak hasi gabe baleude, urbanizazio lanak, oro har, amaitu egin beharko lirateke, eta behar bezala entregatu beharko litzaizkioke Udalari.

D, E eta F faseak egin bitartean, eraikuntza berriaren segidan dagoen Kondeaneko Aldapako espaloitik oinezkoei pasatzen uzteko aukera aztertu beharko da.

14.-BESTE BALDINTZA BATZUK

Urbanizazioko akaberei dagokienez, igogailutik iristeko plataforma albotik itxi beharko da, Igeralde kaleko harresikoaren tankerako harri-horma batekin.

Oraingo urbanizazio harresiak, gero mantenduko direnak, era egokian tratatu beharko dira; oraingo blokeak, begien bistan geratuz gero, estali beharko dira.

Aurreko txostenetan eskatu bezala, gorago jarritako zebrabideak ipini dira Igeralde kalearen hasieran eta Kondeaneko Aldaparen bukaeran;

las viviendas. La Fase A, que incluye la gran mayoría de la urbanización, deberá incluir también la construcción de la totalidad de los forjados de las viviendas hasta cota 0, además de los elementos de urbanización externos del área. En este sentido, en dicha fase deberá dejar ejecutado también el acceso a la rampa que comunica con la plaza posterior y Zumardi Handi.

Independientemente de las fases en las que se ejecute la edificación y debido en gran medida a la incertidumbre sobre los plazos en los que se pueda finalizar ésta, si en el plazo de 3 años desde la concesión de la primera de las licencias no se hubiera comenzado con las obras de las últimas fases, la urbanización en su conjunto deberá finalizarse y entregarse en su debida forma al Ayuntamiento.

Durante la ejecución de las Fases D, E y F se deberá estudiar la posibilidad de permitir el paso peatonal por la acera de Kondeaneko Aldapa contigua a la nueva edificación.

14.-OTRAS CONDICIONES

En los acabados de urbanización, la plataforma de acceso desde el ascensor deberá cerrarse lateralmente, en una piedra de mampostería similar al muro que contiene la calle Igeralde.

Los muros de urbanización existentes y que se mantienen deberán tratarse de forma adecuada, revistiendo el bloque actualmente existente en los casos en que éste pudiera quedar visto.

Tal y como se pedía en los informes anteriores, se han colocado pasos de cebra elevados al inicio de la calle Igeralde y al final de Kondeaneko Aldapa,

lanok eremuaren urbanizazioaren kontura geratuko dira.

Esparruaren kanpoko obrei dagokienez, sustapenaren kontura geratuko dira igogailuaren bukaerako pasagunearen azken zatia Bidebieta auzoko kale nagusiarekin lotzeko egin beharreko gastuak; espaloiak atontzeko eta zebrabidea egiteko beharrezko obrak ere sartu beharko dira gastu horietan.

Igeralde kalea zaharberritzeko eta sekzioa berdintzeko beharrezkoak diren gainerako obrak momentuan bertan balioetsi beharko dira, eta xede horretarako hirigintza hitzarmenean aurreikusitako zenbatekoen kontura egingo dira.

Urbanizazio proiektu honen egikaritze fasean koordinazio estua izan beharko da Zelai ibaia bideratzeko Ur Agentziak sustatu duen lanarekin, baita Udalaren Zumardiaundiko urbanizazio obrekin ere. Beraz, xede horretarako premiazkoak diren bitarteko guztiak jarri beharko dira.

que deberán ser a cargo de la urbanización del área.

En lo referente a las obras externas al ámbito, irán a cargo de la promoción los gastos necesarios para la ejecución de las obras necesarias para la conexión del final de la pasarela en la que desembarca el ascensor y el inicio de la calle principal de Bidebieta Auzoa, incluyendo las obras necesarias para la habilitación de las aceras y el paso de cebra.

El resto de obras necesarias para la reforma de la calle Igeralde y la uniformización de su sección se deberá valorar en su momento y ejecutar a cargo de las cantidades previstas para tal fin en el convenio urbanístico.

Este Proyecto de Urbanización en su fase de ejecución requiere una estrecha coordinación tanto con la obra del encauzamiento del río Zelai promovida por Ur Agentzia como con la obra de urbanización de Zumardi Handia, del Ayuntamiento, por lo que se deberán poner los medios necesarios para tal fin.

7.- Ibilgailuen zerga J.J.G.A-ren eskaera/ Impuesto de vehículos. Solicitud de J.J.G.A.

2008ko urriaren 27an, J.J.G.A-k eskatu du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena 0684-CBH ibilgailuan, minusbaliotasunagatik.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea,

El 27 de octubre del corriente, J.J.G.A. ha solicitado la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 0684-CBH, por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del

Gobernu batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- J.J.G.A-aren izenean matrikulatutako 0684-CBH ibilgailuari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena ematea, 2009tik aurrera.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

Impuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Conceder a J.J.G.A. la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción mecánica correspondiente al vehículo 0684-CBH, con efectos a partir del año 2009.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y al interesado.

8.- Berdintasun eta informatikako zerbitzuak esleitzeko pleguak.

Gaia erabaki gabe geratu da hurrengo batzarrararte.

9.-29. zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak 29. faktura-zerrenda, 263.765,45 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako 29. faktura-zerrenda onartzea.

BIGARREN.- Onarpenaren berri Kontuhartzaitzari ematea.

Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik, ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:

Samaniegoko kontserjeari.

Onintza Lasak galdetu du ea nola dagoen Samaniegoko 2. kontserjeari buruz eskatutako txostena. Eginda dagoela erantzun zaio, baina kontuhartzaitzako teknikoaren lotzeko azterketa ekonomikoa egiten ari dela.

Alhondigako garajeak.-

Alhondigako garaje batzuk itxiak eskeiniko direla adierazi du Jokin Azkue alkateordekoak, beti ere Plenoak onartzen badu proposamena.

Garaje itxi horiek eskatzeko epe berri bat irekiko da eta aukera berbera izango dute eskaitzaile guztiek, nahiz eta orain arte izena eman dutenek (epe barruan) garaje irekietan lehentasuna izango duten. Hauen zozketa azaroaren 7an, arratsaldeko 8etan, egingo da.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, 10:00etan.

Beh. Beh. ALKATEA

IDAZKARIA